



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

**ATXIKITAKO
ERAKUNDEEN
BETETZEAGATIKO
GAINBEGIRATZE-
ZEHAPEN-PROZEDURA**

**TOKI
EZ-

ETA**

**Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetarako
DATU PERTSONALEN BABESaren arloko Jardunbide
Egokien Eskuliburiari atxikitakoak**

DOKUMENTUAREN AURKIBIDEA

1	AURREKARIAK	1
2	DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA ETA 2/2004 LEGEAK EZARRITAKO ZEHAPEN-ERREGIMENA	2
3	GAINBEGIRATZE-PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK	2
3.1	GAINBEGIRATZEAZ ARDURATZEN DEN ORGANOA: JARDUERA EGOKIEN ESKULIBURUA GAINBEGIRATZEKO BATZORDEA (JEEJB)	2
3.2	JEEJBRENTZAKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA (LTZ) EUDELEN.....	3
3.3	ATXIKITAKO ERAKUNDEEN BETETZEA/EZ BETETZEA EBALUATZEKO GAITASUNA DUTEN KOORDINATZAILEEN ZERRENDA (EBALUATZAILEAK)	4
4	JEE EZ BETETZEAGATIK AURKEZTUTAKO KEXA ETA ERREKLAMAZIOAK	4
4.1	KEXAREN AURKEZPENA	5
4.2	KEXA TRAMITATZEKO PROZEDURA.	5
5	ESKULIBURUAREN EZ BETETZEA GAINBEGIRATZEKO PROZEDURA	7
5.1	JEEN AURREIKUSITAKO XEDAPEN-BETEPENAREN EBALUAZIO ETA IKUSKAPENEN PROGRAMAKETA ETA ANALISIA, ATXIKITAKO TOKI ERAKUNDEEN ALDETIK	7
5.2	PROZEDURA	7
6	ZEHAPEN ERREGIMENA	9
6.1	ARDURADUNAK.....	9
6.2	ARAU-HAUSTE MOTAK	9
6.3	ZEHAPEN MOTAK.....	10
7	PROZEDURAK, EREDUAK ETA EPEAK	11

1 Aurrekariak

Euskadiko Udalen Elkarteak (aurrerantzean EUDEL), elkarteko udalerrien interes orokorrak defendatu eta ordezkatzeko du bere helburuen artean. Hori horrela, 2008ko martxoaren 13an egindako Batzorde Betearazlean *Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetarako Datuak Babesteko Jarduera Egokien Eskuliburua* (aurrerantzean JEE) onartu zuen, bai eta Datuen Babeserako Euskal Agentzian egindako gordailua ere, Datuen Babeserako Euskadiko Erregistroan Kode Tipo gisa inskribatzeko.

JEEren 59. artikulua, 1720/2007 Errege Dekretu bidez onartutako DBLO garatzen duen Araudiaren 75. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik, honakoa ezartzen du: *"...atxikitako toki erakundeek bere gain hartutako betebeharrak betetzen direla bermatzeko, gainbegiratze-prozedura bat ezarriko da, bai eta zehapen-erregimen bat ere. Hori bideratzeko, atxikitako toki erakundeek osaturiko lantalde bat osatuko da, eta talde horrek, indarrean dagoen lehenengo sei hilabeteetan, aipatu prozeduren arauak proposatu beharko du, Eskuliburuan eranskin gisa gehituko dena".*

JEE gordailatzeko eskabidean eta Datuen Babeserako Euskadiko Erregistroan Kode Tipo gisa inskribatzerakoan, EUDELek honako konpromisoak hartu zituen, besteak beste, *"Datuen Babeserako Euskal Agentzian aurkeztea 6 hilabete baino lehen, atxikitako erakundeek ez-betetzeagatik gainbegiratze-eta zehapen-prozedura, honako Eskuliburuan eranskin gehigarri gisa jasoko dena".*

Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeek errealitatearentzako proposamen bideragarri eta egokia egin duen lantaldea eratu da; egiteko horretan, halaber, kontuan hartu dira arestian aipatu Araudiaren 75.2. artikuluan aipatzen diren bermeak:

- a) *Ikuskaritza-lana egiteko ardura duten organoak loturarik gabe eta mendekotasunik gabe jardun behar du.*
- b) *Baten batek ereduak kode hori urratu egiten badu, organo horretan aurkeztu beharreko kexak eta erreklamazioak erraz, oztoporik gabe, bizkor eta doan aurkeztu behar dira.*
- c) *Kontraesan-printzipioa.*
- d) *Zehapen-sailkapen moduko bat, urraketa zein larria izan den gorabeheran, zehapen bat edo bestea jartzea erabaki ahal izateko. Zehapen horiek urraketa-egilea atzera egin arazteko balio behar dute, eta baliteke Kodearekin duen lotura etetea edo bertatik kanpora botatzea. Eta jendartean urraketa berri emateko aukera ere badago.*
- e) *tartean denari emango zaio erabakiaren berri.*

Hori guztia dela-eta, Jarduera Egokien Eskuliburua gainbegiratzeko honako prozedura hau egin da, ERANSKIN moduan erantsi dena.

2 Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta 2/2004 Legeak ezarritako zehapen-erregimena

DBLO garatzen duen Araudiaren 75. artikulua **3.** atalarekin bat etorriz, "*Artikulu honetan xedaturikoa bete egin behar bada ere... autonomia-erkidegoetako kontroleko agintarien eskumenetatik ezer kendu gabe egin beharko da*". Horren arabera, beraz, honako dokumentuak jasotako zehapenak ezartzerakoan, ez da guztiz kontuan hartu Titulartasun Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezartzen dena (Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eratzen duena). Jarduera Egokien Eskuliburua Gainbegiratzeko Batzordearen aurrean tramitatutako keza edo salaketak, aipatu legean jasotako ez-betetzeei dagozkienak, Datuak Babesteko Euskal Bulegora igorriko dira, hala zuzenean, nola toki erakundeen bidez, bertan tramitatzeko.

3 Gainbegiratze-prozesuan parte hartzen duten eragileak

3.1 Gainbegiratzeaz arduratzen den organoa: Jarduera Egokien Eskuliburua Gainbegiratzeko Batzordea (JEEJB)

JEE betetzen dela gainbegiratzeaz arduratuko den Organoari **Jarduera Egokien Eskuliburua Gainbegiratzeko Batzordea** (aurrerantzean **JEEJB**) deituko zaio. Batzorde hori EUDELe izendatuko du bost urterako, eta honako kideez osatuta egongo da:

- Politikarien edota instituzioen ordezkari bat, Presidente gisa jardungo duena.
- EUDELeko sail teknikoko ordezkari bat, Idazkari gisa jardungo duena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetako hiru ordezkari, Idazkaritzan edota bestelako zereginetan jardungo dutenak: zuzenbidearekin lotutakoak, informatika, antolaketa, edota dokumentazio eta artxiboa.

JEEJBk ohiko bilkurak egingo ditu sei hilero edo, hala badagokio, ez-ohikoak, Presidenteak hala eskatzen duenean, baldin eta JEEen aurreikusitako neurriak errespetatu ez direla jakiten denean, edota horren inguruan eragin izan dezakeen beste edozer gauza gertatzen denean. Funtzionamenduari dagokionez, organo kolegiatuei buruzko araudiak dioena hartuko da kontuan.

JEEJBren baitan, bilkuran parte hartu duten kideen gehiengo osoaren bidez hartuko dira erabakiak.

JEEJBren egitekoak honakoak izango dira:

- a) JEEri atxikita dauden toki erakundeek jokabide egokia zaintzea, bertan aurreikusitako neurriak betetzea eskatuz.
- b) Burutu beharreko JEEen aurreikusitako xedapenak betetzen direla gainbegiratzeko programaketa-irizpideak ezartzea; horretarako, kontuan izango dira lurraldekako biztanle-kopurua eta beste zenbait irizpide. Aurretiaz, gainera, gainbegiraketa eta ikuskaritzak egiteko programazio eta planak onartuko dira.
- c) Burututako gainbegiraketen azterketa eta txostenak onartzea.
- d) JEE ez-betetzeagatik sor litezkeen balizko keak aztertzea eta, ezarritako prozedurarekin bat etorriz, ebaluatzaile gisa jardun behar duten pertsonen agintzea: informazioa eskatzea, eta zehapen-aitorpenaren nahiz zehapena ezartzearen inguruko proposamenak gauzatzea.
- e) Zehaztea, hala badagokio, dokumentu honetan jasota dauden ezarri beharreko zehapenak; horretarako, JEEra atxikita dauden toki erakundeen jarduerari buruzko keak igorriko dira Datuak Babesteko Euskal Bulegora, baldin eta kexa horiek datuak babesteari buruzko araudia haustea eragin baditzakete.

3.2 JEEJBrentzako laguntza teknikoko zerbitzua (LTZ) EUDELen

JEEJBk agindutako tramitazio dokumental eta tekniko guztiak gauzatzeaz arduratuko diren teknikariak izango dira EUDELen. Honako prozeduraren ondoretarako, **JEEJBri Laguntza Teknikoa emateko Zerbitzuari LTZ** izena emango zaio.

Hona hemen LTZ horren egitekoak:

- a) Gainbegiratze eta ikuskatze planaren betepenarekin lotutako tramitazio dokumental guztiak egitea.
- b) Hautatutako udalei aurretiazko informazio-errekerimenduak egitea, JEEJBk hitzartutako galdetegiaren arabera.
- c) Jasotako informazioa tratatu, kudeatu eta aztertzea.
- d) Aurretiazko txostenaren eta neurri zuzentzaileen berri ematea, ez-betetzeak gauzatu dituzten toki erakundeei.
- e) Hitzartutako zehapenei buruzko behin betiko txostena jakinaraztea.

- f) Prozedura honetan jasotako beste edozein jarduera, edo JEEJBk agintzen dituenak.

3.3 Atxikitako erakundeek betetzea/ez betetzea ebaluatzeko gaitasuna duten koordinatzaileen zerrenda (ebaluatzaileak)

Atxikitako erakundeek betetze-maila ebaluatuko duten pertsona-zerrenda bat osatuko da. Zerrenda horretan egongo dira, datuak babesteko toki erakundeek izendatzen dituzten koordinatzaileak, EUDELe eta DBEBk ezarritako gutxienezko prestakuntza betetzen dutenak. Aurrerantzean, **pertsona ebaluatzaileak** deituko zaie.

Bi pertsona ebaluatzaile izendatuko dira, gainbegiratze- eta ikuskatze-planean zehaztutako jarduerak gauzatzeko. Izendapen horretan, kontuan izango dira baliagarritasun eta errotazio irizpideak, bai eta norbere erakundea ez ikuskatzea eta ezagutzen osagarritasuna ere. Pertsona ebaluatzaile horien egitekoak betetzeko, ikuskatze-jardueran ezagutu dezaketenaren inguruko konfidentzialtasuna bermatzen duen dokumentua sinaraziko zaie.

Hona hemen pertsona ebaluatzaileen egitekoak:

- a) Ikuskatutako erakundeek igorritako informazioa ebaluatzea, hala eskatzen zaienean.
- b) Bisitak "in situ" egiten diren Ikuskaritza-prozeduretan, erakundera bertara joatea, aurretiaz emandako dokumentazioaren inguruan egon litezkeen zalantzak argitzeko, edota datu pertsonalen babesari buruzko jarduerak "in situ" ikusi ahal izateko.
- c) Kexak tramitzatzeko prozeduran bisita egitea, baldin eta LTZren ustez beharrezkoa denean jarduera "in situ" ikustea, dokumentazioa aztertu ahal izateko.
- d) Ebaluatu diren erakunde edota erakundeek inguruko bi txosten egitea urtean (aurretiazkoa eta behin betikoa).
- e) Prozedura honetan jasotako beste edozein jarduera, edo JEEJBk agintzen dituenak.

4 JEE ez betetzeagatik aurkeztutako kexa eta erreklamazioak.

4.1 Kexaren aurkezpena

Ez-betetzeagatiko kexaren bat dagoenean, edota JEEen ezarritakoaren aurkako jardueraren bat dagoenean, JEEra atxikitako toki erakundeetako jardueraren batengatik kaltetutako edozein herritar edota pertsonak aurkeztu ahalko du erreklamazioa JEEJBren aurrean, bai zuzenean, bai dagokion toki erakundearen bitartez.

Kexa aurkezteko, I. Eranskinean atxikitako ereduak erabil daitezke. Eredu hori doakoa da, eta herritarren esku egongo da atxikitako erakundeetan:

- Toki erakundeko jendaurreko bulegoetan edota idazkaritzetan
- Atxikitako udaletako web orrietan
- EUDELen web orrian. Kexa posta elektronikoz bidez ere igorri ahalko da

Kexa guztiak toki erakundeetan edota EUDELen aurkeztu ahalko dira. EUDELen aurrean aurkeztuz gero, posta elektronikoz nahiz arruntez bidali ahalko da. Udalaren aurrean aurkeztuz gero, jendaurreko bulegoetara joanda, edota posta elektronikoz bidez igorrita aurkeztu ahalko da.

Kexa toki erakundeetan aurkeztuz gero, azken horrek EUDELen LTZra igorriko du, hiru eguneko epean, horretarako baliabide elektronikoak erabiliz, ahal bada.

4.2 Kexa tramitatze prozedura.

4.2.1 Prozedura hastea, eta JEE ez betetzeagatiko edota datuak babesteko araudia ez betetzeagatiko kexa den ala ez zehaztea

Jarduera	Arduraduna	Mugaeguna
Kexa formulatzea. JEEri atxikitako toki erakunde baten jardueraren batek kaltetutako edozein herritar nahiz pertsonak jarritako kexa (I. Eranskineko ereduaren arabera)	Herritarra	
EUDELen LTZra igortzea. Kexa EUDELen aurkeztuz gero, LTZra igorriko da. Toki erakundeetan aurkeztuz gero, berriz, erakundeak berak igorriko du LTZra.	LTZ/Udalak	Hiru egun
Azterketa. LTZk erabakiko du honako kasuren bat aurrean gauden ala ez: <ul style="list-style-type: none"> • JEE ez betetzeagatiko kexa. Tramitazioak aurrera jarraituko duen ala ez. • Datu pertsonalak babesteko araudia hautsi den ala ez. DBEBra igorri ala ez. 	LTZ LTZ	Hiru egun

4.2.2 JEE ez betetzeagatiko kexa



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Jarduera	Arduraduna	Mugaeguna
Salatu den toki erakundeari informazioa eskatzea. Aurkeztutako kexaren kopia gehituko da.	LTZ- salatutako toki erakundeari	7 egun
Dokumentazioa igortzea	Toki erakundea	15 egun

4.2.2.1 Ebaluatzaileak izendatzen ez direnean

Jarduera	Arduraduna	Mugaeguna
Dokumentazioa aztertzea	LTZ	15 egun
Txostena igortzea; bertan, hala badagokio, arau-haustea eta zehapen-proposamena jasoko dira.	LTZ	15 egun
Proposamena toki erakundeari igortzea, alegazioak aurkeztu ahal izateko.	LTZ	7 egun
Alegazioak aurkeztea	Toki erakundea	15 egun
Arau-haustea zehaztu eta zehapena ezartzeko Erabakia	JEEJB	Aurreikusitako urteko bileren araberakoa
Erabakia toki erakundeei jakinaraztea	LTZ	7 egun
Betepenaren gainbegiratzea Aurreikusitako zehapen bakoitzak, dagozkion akats edo irregulartasunak konpondu edota zuzentzeko betebeharra ekarriko du, bai eta egoera edota jarrera desegokien zuzenketa ere.	LTZ	

4.2.2.2 Ebaluatzaileak izendatzen direnean

Jarduera	Arduraduna	Mugaeguna
Izendapena; pertsona ebaluatzaileak jakinaraztea eta dokumentazioa igortzea	LTZ	7 egun
Dokumentazioa aztertzea	Ebaluatzaileak	15 egun
Salatutako toki erakundera bisita	Ebaluatzaileak	15 egun Lanaldi erdiz
Txostena igortzea; bertan, hala badagokio, arau-haustea eta zehapen-proposamena jasoko da, LTZra igortzeko.	Ebaluatzaileak	15 egun
Proposamena toki erakundeari igortzea, alegazioak aurkeztu ahal izateko.	LTZ	7 egun
Alegazioak aurkeztea	Toki erakundea	15 egun
Arau-haustea zehaztu eta zehapena ezartzeko Erabakia	JEEJB	Aurreikusitako urteko bileren araberakoa
Erabakia toki erakundeei jakinaraztea	LTZ	7 egun
Betepenaren gainbegiratzea Aurreikusitako zehapen bakoitzak, dagozkion akats edo irregulartasunak konpondu edota zuzentzeko betebeharra ekarriko du, bai eta egoera edota jarrera	LTZ	

desegokien zuzenketa ere.		
---------------------------	--	--

5 Eskuliburuaren ez betetzea gainbegiratzeko prozedura

5.1 JEEEn aurreikusitako xedapen-betepenaren ebaluazio eta ikuskapenen programaketa eta analisisa, atxikitako toki erakundeen aldetik

JEEJBk hamabost urterako planak hitzartuko ditu atxikitako erakundeek betetze-maila errespetatzen duten gainbegiratzeko; plan horretan, urte bakoitzerako aurreikusitako plangintza jasoko da.

Plan horiek zehaztuko dute:

- o Atxikitako erakundeen %20 ikuskatzea urtean
- o Kaltetutako toki erakundeen zehaztapena
- o Horietako zeintzuk ikuskatu daitezkeen “in situ” zehaztea

Hamabost urterako lehenengo plana 2010ean hasiko da.

5.2 Prozedura

5.2.1 In situ ikuskapenik gabe

Jarduera	Arduraduna	Mugaeguna
Ikuskaritza-egutegiaren eraginpeko toki erakundeentzako jakinarazpenak	LTZ toki erakundeari	Urtarrilak 20
Aurretiatzko informazioa eskatzea , aurrekoari eransteko eskatutako dokumentuetan Eranskin gisa ezarritako galdetegiaren arabera	LTZ toki erakundeari	Urtarrila
Galdetegia bueltatzea eta informazio gehigarria	Toki erakundea	Martxoak 20
Jasotako informazioaren gaineko azterlana eta gehitutako behin-behineko txosten-proposamena , emaitzei buruzkoa	LTZ JEEJBri	Maiatzak 20
Emaitzen behin-behineko txostena onartzea	JEEJB	Maiatzak 30
Toki erakundeei txostena jakinaraztea , eta alegazioak aurkezteko eta neurri zuzentzaileak aplikatzeko epea zabaltzea erakunde arau-hausleei	LTZ toki erakundeari	Ekainak 10
Neurri zuzentzaileak ezartzea edo horien gaineko alegazio edota komunikazioak EUDELi egitea.	Toki erakundea	Urriak 10
Jasotako alegazio eta informazioaren gaineko azterlana eta gehitutako behin betiko txosten-proposamena , emaitzei buruzkoa	LTZ JEEJBri	Azaroak 10



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Emaizten behin betiko txostena onartzea	JEEJB	Azaroak 20
Toki erakundea informatzea eta DBEB jakinaraztea	LTZ	Abenduak 20
Betepenaren gainbegiratzea. Aurreikusitako zehapen bakoitzak, dagozkion akats edo irregulartasunak konpondu edota zuzentzeko betebeharra ekarriko du, bai eta egoera edota jarrera desegokien zuzenketa ere.	LTZ	

5.2.2 In situ ikuskapenarekin

Jarduera	Arduraduna	Data
Ikuskaritza-egutegiaren ebaluatzaileen izendapenaren eraginpeko toki erakundeentzako jakinarazpenak	LTZ toki erakundeari	Urtarrilak 20
Aurretiazko informazioa eskatzea, eskatutako dokumentuetan Eranskin gisa ezarritako galdetegiaren arabera	LTZ toki erakundeari	Urtarrila
Bi ebaluatzaileak izendatzea. Aurretik, hala ere, libre dauden ala ez galdetuko zaie.	LTZ	Otsaila
Galdetegia bueltatzea eta informazio gehigarria	Toki erakundea LTZri	Martxoak 20
Dokumentazioa ebaluatzaileei igortzea	LTZ ebaluatzaileei	Martxoak 25
Ebaluatzaileen bilera, jarreraren inguruko adostasuna lortzeko	Ebaluatzaileak	Apirilak 10
Toki erakundeari bisita	Ebaluatzaileak- toki erakundeari	Apirilak 20
Txostena egin eta LTZra igortzea	Ebaluatzaileak	Apirilak 30
Jasotako informazioaren gaineko azterlana eta gehitutako behin-behineko txosten-proposamena, emaitzei buruzkoa	LTZ JEEJBri	Maiatzak 20
Emaizten behin-behineko txostena onartzea	JEEJB	Maiatzak 30
Toki erakundeei txostena jakinaraztea, eta alegazioak aurkezteko eta neurri zuzentzaileak aplikatzeko epea zabaltea erakunde arau-hausleei	LTZ toki erakundeari	Ekainak 10
Neurri zuzentzaileak ezartzea edo horien gaineko alegazio edota komunikazioak EUDELi egitea.	Toki erakundea	Urriak 10
Jasotako alegazio eta informazioaren gaineko azterlana eta gehitutako behin betiko txosten-proposamena, emaitzei buruzkoa	LTZ JEEJBri	Azaroak 10
Emaizten behin betiko txostena onartzea	JEEJB	Azaroak 20
Toki erakundea informatzea eta DBEB jakinaraztea	LTZ	Abenduak 20
Betepenaren gainbegiratzea. Aurreikusitako zehapen bakoitzak, dagozkion akats edo irregulartasunak konpondu edota zuzentzeko betebeharra ekarriko du, bai eta egoera edota jarrera desegokien zuzenketa ere.	LTZ	

6 Zehapen erregimena

6.1 Arduradunak

JEEra atxikitako toki erakundeek, prozedura honetan aurreikusitako arau-hauste nahiz zehapen erregimena bete beharko dute.

6.2 Arau-hauste motak

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan ahalko dira.

6.2.1 Arau-hauste arinak

JEEren **arau-hauste arinak** izango dira:

- a) Datu pertsonaletarako sarbidea izango duten zerbitzuak kontratatzerakoan, tratamenduaren arduraduna kontratatzeko orduan nahitaezkoak diren formazko baldintzak bete ahal izateko klausula-ereduak ez erabiltzea, edo halakorik ez existitzea.
- b) Datu pertsonaletarako balizko sarbidea izan lezaketen zerbitzuak kontratatzerakoan, tratamenduaren arduraduna kontratatzeko orduan nahitaezkoak diren formazko baldintzak bete ahal izateko klausula-ereduak ez erabiltzea, edo halakorik ez existitzea.
- c) Baimena behar duten datuak lagatzeko orduan eskuliburuan prozedurarik ez egotea, edo prozedura hori ez betetzea.
- d) JEEen ezarritako neurriak ez betetzea dakarren bestelako arau-hauste oro, arau-hauste larri edota oso larria ez denean.

6.2.2 Arau-hauste larriak

JEEren **arau-hauste larriak** izango dira:

- a) JEEJBk agindutako ikuskaritza-jarduerari trabak jartzea.
- b) LTZ edota JEEJBk eskatutako dokumentazioa ez bete edota igortzea, JEEen ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko unean.

- c) Datuen babesari dagokionez, horiek erabiltzen dituztenentzako prestakuntza-jarduerarik ez egotea.
- d) Datuen tratamendu nahiz lagatzeak kaltetutako pertsonen baimena lortzeko klausula-tiporik ez egotea edota ez erabiltzea, horiek beharrezkoak direnean.
- e) Tratamenduak kalteturiko pertsonak informatzeko klausula-tiporik ez egotea edota ez erabiltzea, datuak ez direnean beraien bidez lortu.
- f) Urtebetean bi arau-hauste arin egitea.

6.2.3 Arau-hauste oso larriak

JEEren **arau-hauste oso larriak** izango dira:

- a) Datuak ikusi, zuzendu, ezeztatu eta aurkaratzeko eskubideetan kalteak jasotzen dituzten pertsonen eskubide hori egikaritzea ahalbideratzen dien prozedurarik ez egotea, edota ez betetzea.
- b) Datuak ikusi, zuzendu, ezeztatu eta aurkaratzeko eskubideetan kalteak jasotzen dituzten pertsonen eskubide horiek egikaritzeko eredurik ez eskaintzea, berehala eta dohainik.
- c) Urtebetean bi arau-hauste larri egitea.

6.3 Zehapen motak

Honako zehapenak ezarri dira:

- a) Arau-hauste arinentzako zehapenak: Idatzizko ohartarazpena.
- b) Arau-hauste larrientzako zehapenak: Idatzizko ohartarazpena eta JEErako atxikipena aldi batez etetea, arau-haustea konpondu dela egiaztatu arte; eta egiaztatze-zigilua erabiltzeko debekua, hala badagokio.
- c) Arau-hauste oso larrientzako zehapenak: Idatzizko ohartarazpena eta JEErako atxikipena aldi batez edota, beharrezkoa izanez gero, behin betiko etetea, arau-haustea konpondu dela egiaztatu arte; eta egiaztatze-zigilua erabiltzeko debekua, hala badagokio.

Aurreikusitako zehapen bakoitzak, dagozkion akats edo irregulartasunak konpondu edota zuzentzeko betebeharra ekarriko du, bai eta egoera edota jarrera desegokien zuzenketa ere.

7 Prozedurak, ereduak eta epeak

Eskuliburu honetan ezarritako eguneko epeak lanegunei dagozkiela ulertuko da, kontrakoa adierazten denean salbu. Hala ere, epearen azken eguna laneguna ez balitz, hurrengo lanegunera arte luzatu dela ulertuko da.

Prozeduran azaltzen diren datak erreferentziazkoak dira; hori horrela, JEEJBk edota LTZk aldatu ditzakete, urte bakoitzeko egutegi errealaren arabera. Urteroko bakoitzeko egutegia EUDELen web orrian argitaratuko da, behar besteko aurrerapenarekin. Hori aldatu nahi izanez gero, beraz, EUDELen web orriaren bidez egin beharko da, indarreko ekitaldian zehar.

Honako prozedurari gehitu zaizkion eranskinak JEEJBk eguneratu ahalko ditu, eta EUDELen web orrian argitaratuko dira. Honakoak dira:

- S I. JEE ez-betetzeagatik aurkeztutako kexa-eredua.
- S II. JEE ez-betetzeagatiko ebaluazio-galdetegia
- S III. Prozeduren diagramak

EUDELen Batzorde Betearazlean
onartutako prozedura. Bilbon, 2009ko
xxxxxxaren XX(e)an